

ESTITXU VILLAMOR LOMAS

Fisikaria

“Zientzia modu arduratsuan erabili beharko genuke”

 ANA GALARRAGA Aiestaran
 Elhuyar Zientzia

Nonbait, irakasle baten eraginez hasi zen Fisika ikasten Estitxu Villamor. Haren hitzetan, “fisikarekiko pasioa kutsatu zigun, eta benetan gustuko nuen; horregatik erabaki nuen hori ikastea. Eta hasieratik piztu zitzaidan tesi bat egiteko gogoia eta ikertzeko jakin-mina”.

Dioenez, laugarren mailan zegoela, CIC nanoGUNen praktikak egiteko aukera sortu zitzaion, udan: “Gustura ibili nintzen. Nanogune ireki berria zen, eta gero doktoretza-tesian egin dudanaren hasiera-hasierako pausoak eman nituen. Orduan, Eusko Jaurlaritzaren beka bat eskatzea proposatu zidaten, eta probatu behar nuela pentsatu nuen”, azaldu du Villamorrek.

Tesia egiten hasi zenean, baina, ohartu zen zientziari buruzko ikuspegi idealizatua zuela: “Beste askok bezala, zientziaren ikuspegi erromantikoa nuen; jakintza bilatzea dela eta hori guztia. Baina ikusi nuen, horrekin batera, badaudela beste gauza batzuk ere”. Horien artean, argitaratzeko presioa eta lan-baldintzak aipatu ditu Villamorrek.

Hala ere, horrek baino eragin handiagoa izan du Villamorren gan beste gogoeta batek: “Zertarako ikertzen da, zer interes dau- de atzean? Hori da kontua. Izan ere, ikerketa oso-oso garestia

da, batez ere ikerketa esperimentalak. Eta hori finantzatzeko interese- ren bat egon behar du, eta interes hori ez da beti izan behar- ko zukeen bezain etikoa”, baieztatu du.

Haren ustez, ikerketa benetan da garrantzitsua, eta jarraitu behar da ikertzen gizartearen onurarako, baina ondorioak aint- zat hartuta. “Esaterako, ni ikertzen ari nintzenak zer aplikazio du? Bada, zuzenean, industria mikroelektronikoan, oraingoak baino ordenagailu ahaltsuagoak, txikiagoak, azkarragoak eta energia-kontsumo txikiagoak egiteko. Hori interesgarria izan daiteke. Baina benetan da garrantzitsua mundu guztiak halako ordenagailuak izatea? Eta nondik datoz hori egiteko behar di- ren baliabideak? Kontuan izan behar da energia pila bat behar dela, eta erabiltzen diren materialak mugatuak direla”.

HAUSNARKETA EGITEKO BEHARRA


Energiaren eta materialen erabilerak ez ezik, haiek lortzeko nola jokatzaren duten ere kezkarria zaio Villamorri. Koltanaren adibidea jarri du: “Kongotik ekartzen da, eta gudak finantzatzen dira hura ustiatzeko, giza eskubideak sistematikoki urratuz. Ikertzen ari garenean, ordea, ez gara horrekin gogoratzen”.

Horrenbestez, Villamorrek uste du ikertzaileek gogoeta egin beharko luke- tela ea nahi dioten lagundu industriari, etengabeko hazkundearen norabidean, edo agian ez ote den hobe norabidea al- datzea, eta ekonomia-sistema aldatzen ahalegintzea. “Zientzia, modu ardu- ratsuan erabilia, lagungarria izan daiteke trantsizio horretan”, gehitu du. Eta ja- rraitu du: “Zientzialariak ere badira munduan gertatzen denaren erantzule, eta, zer ikertzen duten eta zertarako, beren gain hartu beharko lukete horren ardura”.

Horregatik guztiagatik, Villamorrek ikertzen jarritzea baztertu du. “Asko gustatzen zait zientzia, eta ez dut zien- tziarekiko lotura galdu nahi, baina bes- te bide bat hartzea erabaki dut”. Orain- dik ez du garbi zer egingo duen, baina irakaskuntzan edo zientziaren dibulga- zioan aritzea gustatuko litzaioke, “batez ere, irizpide kritikoa sustatzeko”.

Estitxu Villamor Lomas (Gasteiz, 1987). EHU Fisikan lizentziatu zen, eta CIC nanoGUNen aritu da ikertzen. Lehenbizi, Nanozientzia masterra zela medio, eta, ondoren, doktore-tesia burutzen. 2014ko abenduan, *Injection, transport and manipulation of pure spin currents in metallic lateral spin valves* izeneko tesia defendatu zuen. Gaur egun, ikerketa alde batera utzi, eta hezkuntzaren eta zientzia-dibulgazioaren munduan aritzea du helburu.

UPV/EHU Kultura Zientifikoko Katedraren lankidetzan egindako atala.



ARG.: IÑIGO IBAÑEZ